

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA: MIREN ASIAIN LORA ERAKUSKETA

AIETE KULTUR ETXEA

Urriak 14 – Urtarrilak 24

Ordutegia

Astelehenak eta jaiegunak itxita

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30 / Gabonetan: 10:00-14:00

Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igandeak: 10:00-14:00

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean Txokoa ireki zenetik, bertatik igaro dira ilustratzaile klasiko eta berriak: Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso, Jokin Mitxelena, Estibalitz Jalón, Jon Zabaleta, Belén Lucas, Leire Urbeltz, *Marrazioak* topaketetako artistak, Asun Balzola, Iñaki Martiarena “Mattin”, Ainara Azpiazu “Axi”, Concetta Probanza, Unai Zoco, Begoña Durruty, Dani Maiz, Lorena Martínez, Idoia Beratarbide, Tomás Hernández Mendizábal, Iraia Okina, Dani Fano, Andrea Escargot, Iker Ayestaran eta Yolanda Mosquera eta Asier Iturralde. Orain Miren Asiain Loraren txanda da.

MIREN ASIAIN LORA (IRUÑEA, 1988)

Bilbon Arte Ederrak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, baina azken ikasturtea Buenos Airesen (Argentina) burutu zuen. Ilustrazioaren munduan bere kabuz hasi zen.

Bere lanak munduko hainbat lurraldetan erakutsi ditu: Txina, Japonia, Korea, Argentina, Mexiko, AEBak, Espainia eta Italia, besteak beste. Berak ilustratutako liburuak ere hainbat hizkuntzatan argitaratuak izan dira.

Asiainen lanen artean badira sari garrantzitsuak irabazitakoak. 2012an iruindarrak idatzi eta ilustratutako *Hara!* (Pamiela, 2012) album ilustratuak Etxepare saria jaso zuen. 2013an finalista izan zen Literaturako Euskadi sarietan eta berriki *Un millón de ostras en lo alto de la montaña* (Flamboyant) liburuan egindako lanagatik 2020ko Euskadi Saria eskuratu du. 2015ean, “Iberoamerica Ilustra: Catálogo Iberoamericano de ilustración” saria jaso zuen Guadalajarako

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 151 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Liburuaren Nazioarteko Azokan, Mexikon. Sari hauei esker bultzada handia lortu zuen bere karrerak.

2017, 2018 eta 2019an Boloniako Haur Liburuaren Nazioarteko Azokaren erakusketan parte hartzeko hautatua izan zen.

2019an, bere lana “Ilustrarte” Nazioarteko Ilustrazio biurtekoan (Portugal) eta New Yorkeko Ilustratzaileen elkarteak (SOI) antolatutako “Illustrator’s 61” erakusketetan hautatu zuten. Liburuak ilustratzeaz gain, musika diskoen azalak eta pelikula, antzezlan eta beste hainbatetarako kartelak sortzen ditu.

Mirenentzat ilustrazioa ez da testuaren alboan ageri den irudi soil bat, haratago doan zerbait da, sentimenduak eragin eta beste lurraldeetara garamatzaten irudiak dira ilustrazioak. Artea beti izan da bere bizitzaren parte. Ikasketak amaitu zituenean konturatu zen ilustratzaile lana jaten emango zion ogibidea izan behar zuela, baina, era berean, pasioz burutuko zuena.

Bere webgunea: <https://miaslo.com/>